

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### ENPLEGU ETA GARAPEN EKONOMIKO IRAUNKORRA

**Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko irailaren 2an onartutako deialdi baten laburpena: "Gasteizen lan-kontrataziorako laguntza ekonomikoak emateko udal programaren deialdia, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2016ko ekitaldiko laguntza deialdiaren barruan"**

BDNS (identifikatzailea): 316706

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index> eta Gasteizko Udalaren web-orrian <http://www.ayuntamientovitoria-gasteiz.org> kontsulta daitezke.

#### **Lehena. Onuradunak**

Pertsona fisiko edo juridikoak, ondasun-erkidegoak nahiz beste edonolako ekonomia-unitate edo ondare bereziak, baita nortasun juridiko propiorik izan gabe ere, baldin eta diru-laguntza ematea dakarten jarduerak gauzatzetik badute:

- Diruz laguntzeko moduko jarduerak garatzea, zuzenean, Gasteizko udalerriko lantoki batean.
- Zerga eta lan betebeharrak egunean izatea, bai eta Gasteizko Udalari dagozkionak ere.
- Administrazio-bidean edo bide penalean zigortua eta laguntza publikoak eskuratzeko aukeratik apartatua ez egotea, ezta horretarako ezgaitzen duen inongo legezko debekuren menpe ere, Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu arrazoiengatik diskriminaziotzat jotzen diren egintzen ondorio direnak barne.
- Beste diru-laguntzarik ez jaso izana, pertsona bera kontratatzeko, Gasteizko enpresei lan-kontrataziorako laguntza ekonomikoak emateko udal programaren 2015eko deialdian.
- Enpresa onuradunek laguntza programa honetan parte hartzen duten denbora osoan bete beharko dira baldintza horiek.

#### **Bigarrena. Xedea**

Gasteizen ohiko lan-merkatuko lanaldi osoko nahiz partzialeko kontratazioa sustatu eta erraztera zuzendutako laguntza ekonomikoak emateko baldintzak arautzea dute xede oinarri hauek — norgehiagoka baliatuko da horretarako —, eta, bereziki, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda dauden langabeena eta lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonena.

#### **Hirugarrena. Oinarriak**

Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko irailaren 2an egindako ohiko bilkuran onetsiak.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Laguntza-deialdi honek milioi bat eta berrehun mila euroko (1.200.000,00 euro) zuzkidura du, 2016rako onetsitako 0823.2411.47123,"kontrataziorako laguntzak - Eskualdeko IV. Enplegu Plana" aurrekontu-partidaren kontura.

Laguntza 6.000,00 eurokoa izango da, gehienez, sei hilabeteko edo hortik gorako lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzeko. Lanaldi partzialeko kontratazioa bada, lanaldiaren edo lanean egindako denboraren arabera izango da diru-laguntza. Laguntzaren azken zenbatekoa ezingo da izan kontratatutako pertsonen soldata-kostuen eta Gizarte Segurantzako ehuneko 75etik gorakoa, kontratu-amaierako kalte-ordainak barne.

**Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

Oinarri hauek ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta 2016ko azaroaren 9an bukatuko.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko irailaren 5ean

*Gasteizko Udaleko Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren*

*Saileko zerbitzu burua*

*LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI*